

Arrakalak buruan...



IÑAKI MURUA
BERTSOLARIA

Hiztegian begira aritu naiz eta arra hitzaz hasitako hirurehun hitz inguru aurkitu ditut. Aldiz, hasieran eme hitza –bere horretan– dutenak, he-me-zortzi. Harritu nau, euskaraz generoa markatzen ez denez (noka edo hika ez bada) hainbesteko aldea egoteak. Baina, nire kapritxo txoro bat besterik ez da izan.

Horretan ari naizela, industrian itzain ari omen den gizonezko bati entzun diot emakumezkoak behar dituela industriak. Ez dugula industria jardunean behar besteko arrakastarik izan ahalko, *emekastarik* erakarri ezean produktzioarako.

Handik minutu gutxira, ildo berean doan beste berri bat: “Ingeniaritza ikasketak egiteak, lanerako atea irekitzeaz gain, soldaten arteko arrakala desagertzeko bidean jartzen zaitu”. Entzuna ez ezik, barneko mezua ere izan da nire bizitzan, matrikulazio garaietan bereziki: hala sentitu dut. Industrian lan berari soldata bera jarrita ere, zertarako da soldata? Bizitzeko bitartekoa dugu, noski, eta gure etorkizuna eraikitzeko ezinbestekoa, gainera. Baina zertarako dugu prestigidun lana eta soldata bikai-

na, egiten dugunak ez bagaitu asetzen? Dirua ala zoriona? Hortxe zagonk koska!

Lanbide Eskola batean aritu naiz urteetan lanean, emakumezko gure ikasketetara ezin erakarrian. Askori ez zion deus esaten guk eskaintzen genionak; beste batzuek zioten ez zutela buzoarekin ibili beharreko lanik nahi, batarekin ibiltzekoa baizik; mordoak zen zer egin argi ez zeukana...

Egun, dena da buzoa eta dena da bata. Baina bata ez dakar bestea, eta soldata arrakalak bereari eusten dio. Ala txikiagoa da soldata denak txikiagoak diren neurrian? Etxetik lan egiteak sekulako abantaila omen dakar eta badakigu gure amek, amen amek eta haien amek zenbat asto lan egin zuten, ez soldata eta ez aseguru. Etorkizuna Glovo-n dator!

Hala ere pozik: txertoak iritsi baitzaizkigu, beste kolore batzuetakoei ez bezala; edo Ukrainan ez gaudelako, zoro batek mundua sutan jarri baitu beste zoro batzuen konplizitatearekin, gerra negozio izaki; bankuek irabazi neurri gabeak izan dituztelako, lehen denon dirua oparitu zitzaien egoera oneratu orduko itzultzekotan. Alzheimerra ere Cajoo, Flink, Dija, Gorillas... di-da dator ala dakarte!? ●

Fikzioaren gramatika VII: adjektiboak



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

(Fikzioa omen da komunikazioa, norberaren interpretazioa ez bezala. Fikzioa omen da egia, gezurra ez bezala. Fikzioa omen da errealtatea, fikzioa bera ez bezala. A. Alieva)

Bertze hitz batzuk baino lehenago zahartzen omen dira adjektiboak. Bertze solas batzuek baino ibilbide makurragoa egiten omen dute biografietan. Adjektiboak, kalifikatzaileak bereziki, ez omen dira bidaide onak, eta horregatik neurri-neurrian erabiltzeko aholkua eman zizun editore batek aspaldi. Kasu egin zenion. Geroztik, hango

eta hemengo adjektibo andanek zartatu dute zure larrua. Bakandu zure kopeta.

Amaiari esker jakin duzu hizkuntza guztiek ez dutela adjektiborik; aditzen bidez lortzen omen dute funtzio semantiko hori komunitate horietan. Adjektiborik gabeko utopia gramatikal eta komunikatibo batean murgiltzen hasi zara... Posible da, nonbait, interakzio emankorra izatea, gurean, elkarri hain erraz oparitzen dizkiogun etiketa kalifikatzaileetara jo gabe. Iraultza berria.

Maitasuna aditza dela erran zuen Bell Hooksek, ez izen. Are gutiago, adjektibo. ●